

ALKATEAREN ERABAKIA
(2025SUEU0002)

Gaitzat harturik Entitate pribatuei euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak 2025 espedienteari dagokionez

Kontutan hartuz:

Alkateak 2025eko dirulaguntza emateko deialdi bateratua onartu zuen 2025eko martxoaren 3ko Irungo Udaleko Alkatetzaren 0276. Ebazpenaren bitartez eta GAOn argitaratu zen 2025eko martxoaren 14an.

Onartutako deialdi bateratuaren berariazko 27. zenbakidun eranskinean *Dirulaguntzak entitate pribatuei euskararen erabilera sustatzeko* dirulaguntza dago 1 1020.481.01.335.20 aurrekontu aplikazioari lotuta dagoena eta A-724/2025 agiri kontablearen kargura finantzatzen dena.

BDNSko 817712 identifikazio zenbakiarekin erregistratu eta gero, deialdi honen laburpena, 2025eko martxoaren 14an argitaratu zen GAOn (50 zk.).

Gogoan hartuz:

Deialdian zehaztu bezala, interesatuek, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epea izan zuten dirulaguntza eskaria egiteko.

Epe horretan 27. zenbakidun eranskineko dirulaguntza lerrorako, hau da, *Dirulaguntzak entitate pribatuei euskararen erabilera sustatzeko* lerrorako, ez da eskaririk jaso.

Espedientean dauden txosten teknikoa, eskariak eta gainontzeko dokumentazioa **ikusirik**

ERABAKI DUT

1.- 2025eko dirulaguntzen deialdi bateratuaren berariazko 27. zenbakidun eranskineko entitate pribatuei euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntza lerroa bete gabe uztea.

2.- 2025ean entitate pribatuei euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntza lerrorako, 1 1020.481.01.335.20 aurrekontu aplikazioari lotuta dagoen A 724/2025 agiri kontablean gordetako 4.700 euroei baja ematea.

3.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, aukeran, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auziaren aurretik, hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo zuzenean aurkaratu Donostiako administrazioarekiko auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta; hori guztia, egoki iritzitako beste edozein aurkeztetik aparte.

Irunen, ebazpen honen sinaduraren egunean.

ALKATEA